

## HEZITZAILEAK ASKO EGIN DEZAKE

Sakanako ikastetxeetan haur eta gazteen % 80 D ereduan matrikulatuta dago eta euskaraz ikasten du. Zenbait herritan % 100 dago D ereduan. Baina hizkuntzak ongi ikasteko eta erraztasuna izateko maiz erabili behar dira, eta **zenbaitek, euskaraz ikasi arren, ez dute eskolaz kanpo hitz egiteko aukera handiegirik.**

**Aisialdia esparru estrategikoa da euskararen erabilera sustatzeko eta hiztun berrien ikaste prozesua azkartzeko.** Aisialdiko jardueretan komunikazioa oso garrantzitsua da taldean egiten direlako, hortaz, primerakoak dira euskara lantzeko, modu atsegin batean lantzen baita hizkuntza. Gainera, aisialdiko jardueretan euskaraz aritzen direnek ikasgelan lantzen ez den hizkera lantzen dute: hizkera informala.

**Hezitzaileak zer egin dezake?** Hezitzaileak zareten heinean, euskara zuen ardura ere bada. Baina, jakina, **euskararen erabilera behar bezala sustatzeko baliabideak eta tresnak** behar dira. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak **HEZITZAILEAK ASKO EGIN DEZAKE** ikastaroa antolatu du hezitzaileei estrategiak erakusteko.

### Hartzaileak

Aisialdiko jardueretan hurrekin edo gazteekin lan egiten duten hezitzaileak (gaztetxokoko begiraleak, kirol hezitzaileak, aisialdiko begiraleak, antzerki irakasleak, jangeletako langileak...).

### Helburua

Hezitzaileei euskararen erabilera modu planifikatuan eta sistematikoan lantzeko metodo bat proposatzea, eta lan hori egiteko estrategia eta tresna zehatzak eskaintzea.

### Edukia

Taldean hizkuntza-errealitatea, errealitate horietarako helburuak, hizkuntza-helburuak lantzeko estrategiak... Egoera errealetan grabatutako bideoak jarriko dira estrategiak nola erabiltzen diren ikusteko, eta jolas eta dinamiken bidez estrategiak frogatuko dira.

### Irakaslea

Ttakun kultur elkarteko hezitzailea.

### Iraupena

4 ordu.

### Noiz

Martxoaren 26an, 9:30etik 14:00etara (tartean ordu erdiko atsedena).

### Non

Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

**EMAN IZENA EUSKARA ZERBITZUAN! Epea: martxoak 16an, 12:00etan.**